

Emun kooperatibak lan eremu berriak zabaldu ditu

DUELA HAMASEI URTE lana euskalduntzeko kooperatiba gisa sortu zen Emun. Alor sozioekonomikoan buru-belarri ibili ondoren, lan eremu berriei helduko die hemen-dik aurrera, eta euskara eta berrikuntza soziala izango ditu misio. Aldaketok, euskal jendartearen behar berriei erantzuteko asmoz

egin dituzte. Lan mundua euskalduntzeko bideari muzinik egin gabe, lau lan eremu banatu dituzte aurrera begira: hizkuntza, kultura, aniztasun eta immigrazioa eta parte-hartzea. Alor horiei euskaratik eta euskaraz erantzungo diete.

Ekainaren 20an, lan ildo eta irudi berriaren aurkezpen publikoa egingo

du Emunek Bilbon. Ekitaldian Kike Amonarrizek hitzaldia eskainiko du galdera honi erantzun nahian: *Nola lotzen dira euskara, kultura, immigrazioa eta parte-hartzea Euskal Herrian?* Aurkezpen saioan ondoko agerpenak ere izango dira: Plataforma per La Llen-gua, Irizar kooperatiba, Fagor Taldea eta Emun aholkulari taldea.

Euskontu: deskontuak euskaraz gozatzeko webgunea

EUSKONTU.COM-EK astean gutxienez hiru deskontu eskainiko ditu. Webgune honen berezitasuna da aukeran jarritako produktu eta zerbitzu guztiak euskaraz kontsumitzea bermatuta dagoela. Besteak beste, kontzertuak, jatetxeak, kirol ekintzak, estetika, moda eta kultur ekitaldiak eros ahal izango dira.

ARGIA aldizkaria Euskontu Taldearekin elkarlanean ari da. Webgunean edozein *euskontu* erosiz gero ARGIA aldizkariako harpidetza %25 merkeago lor daiteke. Bestalde, euskontu.com-en bere burua iragartzen duten negozioek ARGIA aldizkarian komunikazio plana %35eko beherapenarekin egiteko aukera izango dute.



EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Mondragon Korporazioa ez da Bankia

BANKIAREN “lehentasunezko” akzioen aurrean, txoko honetan duela hilabete batzuk esaten genuen Mondragon Korporazioak argitu behar zuela hainbat bankuk komertzializatutako Eroski eta Fagorren “menpeko ekarpenen” egoera. Oraingoz, Korporazioak erabateko isiltasuna mantentzen du. 2002 eta 2007 urte artean 40.000 lagunek egindako ekarpen horiekin 800 milioi euro ingesatu zituen bere kutxan. Urte hauetan guztietan interes gozoak izan dituzte milaka pertsonak (%5 eta %7 artekoak) ekarpen horien bidez. Hilabete batzuetatik hona, ordea, ekarpen horiek egin zituztenek beren balio nominala %60 murriztu dela ikusi dute, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aginduz. Bankiak eta beste hainbatek komertzializatutako “lehentasunezko” akzioen kasua ikusita, badago bere aurrezkiak pixkanaka galduko dituela uste duenik. Hala-erik ez zuten aurreikusitako ekarpenak egin zituztenek, Eroski eta Fagorrek kiebra jo ezean behintzat, eta hori pentsaezina zen Korporazioak duen indarra jakinda.

Kontua auzitegietan eta Eusko Legebiltzarrean dago. Mondragon Korporazioak irtenbide bat lor-

tzeko apustua egin beharko luke seriozki. Bere onerako, eta baita Eroski, Fagor, eta Korporazioarengan sinetsi eta aurrezkien bidez hura finantzatu zuten guztien hobe beharrez ere. Ekarpene milioi-dun horiek gabe Eroskik eta Fagorrek ezin izango lukete biziraun. Ez dirudi auzitara jotzea soluzio onena denik aurreztaileen arazoa konpontzeko. Mondragon Korporazioak, Eroskik, Fagorrek, ekarpenak merkaturatu zituzten erakundeek eta aurreztaileek beraiek, adostasuna bilatu behar lukete. Hasierako balio nominala bermatuko lukeen adostasuna, esaterako, bi eta bost urte arteko arrazoizko epe batean aurrezkiak itzultzea.

Mondragon Korporazioa ez da Bankia. Bere barruan ez da izan eta ez dago lapurrik edo iruzurgilerik. Orain aukera dauka hori erakusteko, bera bezala, badaudelako kapitalista ez den “negozioa egiteko beste modu baten” alde egiten dutenak.

Juan Mari Arregi

